

AZKOITIA / Aizkibel liburutegia Kontzejupen izango da gaur

Haur eta gazteen truke azoka ospatuko da 11.00etatik 13.00etara

Azkoitia. Aizkibel liburutegiaren zerbitzua Azkoitiko udaletxe azpiko Kontzejupean izango da gaur goizean. Haurren eta Gazteen Liburu Eguna ospatzeko helburuarekin, liburutegiak, Gazte Informazio Bulegoak eta Abarketatxo ludotekak liburu trukaketa azoka antolatu dute.

Egitasmoa 11.00etan hasiko da eta 13.00ak arte luzatuko da eta modu honetan, herriko umeei liburu bat eskuratu ahal izango dute beraiek egindako marrazki baten truke eta ekintza honen bidez, ume eta haurren irakurtzeko zaletasuna eta liburu trukaketa bultzatzea lortu nahi dela adierazi zuten antola-tzaileek.

Bestalde, gazte zein helduek parte hartzeko aukera izango dute gaur lehenbizikoz. "Izan ere, gazteak eta helduak Aizkibel liburutegiko bazkide egiten badira edota beste liburu bat ekartzen badute, liburu bat jasoko dute trukean", aurreratu zuen GIBeko arduradun den Esther Sudupek. Gainera, liburutegira iritsi diren liburu berriak aurkeztuko dituzte eta musikaz girotuko dute ekitaldia. >k.f.